

**BILBOKO TXANDATZE ERREGIMENeko UDAL APARKALEKUETAN IBILGAILU
ELEKTRIKOAK KARGATZEA SUSTATZEKO DIRU-LAGUNTZETARAKO**

DEIALDIA

2019

1. ARTIKULUA. XEDEA

Mugikortasun eta Jasangarritasun Sailak, Garraioen esparruaren barruan, "Bilboko txandatze erregimeneko udal aparkalekuetan ibilgailu elektrikoak aparkatzea, kargatu ahal izateko" diru-laguntzarako deialdia egin du.

Deialdiaren xedea da diru-laguntzearako deialdia egitea, Bilboko txandatze erregimeneko udal aparkalekuetan ibilgailu elektrikoak kargatzea sustatzeko gehienez ere ordu birako aparkaldiaren kostua ordaintzeko; ibilgailuak erabat elektrikoak eta norbere jabetzakoak izango dira edo bestela finantza-alokairuan (leasing edo renting) nahiz enpresak lagata.

Bilboko Udalaren titulartasuneko aparkaleku horien emakidadunak erakunde laguntzaileak izango dira. Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 15. artikuluan ezarritakoaren arabera, Lege beraren 16. artikuluan ezarritakoaren arabera hitzarmena sinatuta dutelako. Horrela lortu nahi da ibilgailu elektriko puruen erabilera erraztea eta sustatzea, kutsadura akustikoa, negutegi-efektuko gasen emisioak eta energiaren kontsumoa gutxitzeko. Hori guztia, 2015-2019 Gobernu Planean Garraio, Mugikortasun eta Irisgarritasunari buruz jasotakoa (7. ardatza) betetzeko.

2. ARTIKULUA. ERREGIMEN JURIDIKOA

Honako lege eta arau hauen bitartez arautuko dira deialdiko diru-laguntzak: azaroaren 17ko Diru-laguntzen 38/2003 Legearen bitartez, hura garatzen duen Araudiaren bitartez –uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bitartez onartua— eta Bilboko Udalak eta zuzenbide publikoko barneko organismoek eta erakundeek deitutako diru-laguntzak emateko Oinarri arautzailearen bitartez. Azken horiek 2016ko ekainaren 30eko Udalbatzaren Akordioaren ondoriozko Ordenantza orokorretan onartu dira, eta 2016ko uztailaren 20ko 138. Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu.

3 ARTIKULUA. ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK

1. 38/2003 Legearen 12.1 artikuluan zehaztu bezala, erakunde laguntzaileak izango dira txandatze-erregimeneko udal aparkalekuetako administrazio-emakida duten kontratistak-esleipendunak; horretarako, hala ere, ibilgailu elektrikoak kargatzeko guneak izan behar dituzte eta lankidetzeta-hitzarmena sinatu behar dute. Hitzarmenaren eredia deialdi honekin batera onartu da. Erakunde horiek, diru-laguntzarekin zerikusia duten ondorio guztietarako esleipen-emailea den organoaren izenean eta haren kontura jardunda, elkarlanean arituko dira hura kudeatzen eta jasotako funtsak ez dira alde zurretik eman eta banatuko.
2. Eskatzaileak pertsona fisikoak direnean ezingo dira erakunde laguntzaileak izan, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 13. artikuluko 2. eta 3. idatz-zatietan adierazitako debekuren baten pean badaude.

4 ARTIKULUA. ERAKUNDE LAGUNTZAILEEN BETEBEHARRAK

Erabiltzaileak eskatuz gero, erakunde laguntzaileak konpromisoa hartzen du honako hauek ziurtatzeko:

- 1- Ibilgailua diru-laguntzaren onuradun diren pertsonen zerrendan dagoela; Udalak onuradunentzako diru-laguntzak ebatzi ahala ordainduko ditu.
- 2- Eskatzaileak karga eginda edukitzea.

Erakunde sinatzaileek obligazioa dute egutegiko hiruhileko bakoitzaren amaieran Udalari jakinarazteko karga egin duten ibilgailuen zerrenda, bai eta kontzeptu hori dela-eta Udalak zor dion kopurua ere.

5 ARTIKULUA. ONURADUNAK

Onuradunak dira baldintza hauetakoren bat betetzen dituzten pertsona fisikoak:

- 1.- Ibilgailu elektriko puru baten jabe izatea.
- 2.- Ibilgailu elektriko puruak finantza-alokairuko (leasing edo renting) kontratua izatea eta aseguruan ohiko gidari moduan agertzea.
- 3.- Enpresak lagatako ibilgailu elektriko purua edukitzea, erabilera eskusiborako, eta aseguruan ohiko gidari moduan agertzea.

Ezingo dira onuradun izan Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluko 2. eta 3. paragrafoetan ezarritako debekuren bat duten pertsona fisikoak edo juridikoak.

6. ARTIKULUA. ONURADUNEN ETA EUREN IBILGAILUEN BALDINTZAK ETA BETEBEHARRAK

- 1.- Diru-laguntza jaso ahal izango dute ibilgailu elektriko puruen kargak egiteko aparkaldiek bakarrik, betiere ibilgailu horien titularrek aurreko artikuluan ezarritako baldintzak betetzen badituzte.
- 2.- Titularrak alta emanda egongo dira udal aparkalekuetako ibilgailu elektrikoetarako karga-puntuen mugikorreko aplikazioan edo operadorearen antzeko erregistroan.

7. ARTIKULUA. ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Diru-laguntzen onuradunek azaroaren 17ko Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 14. artikuluan ezarritako betebeharrak bete beharko dituzte.

Diru-laguntza emateko ebazpenaren aurretik, erakunde onuradunak bereziki ziurtatu behar du zergak ordaintzen dituela eta Gizarte Segurantzarekiko obligazioak betetzen dituela.

Ez da diru-laguntzaren ordainketa gauzatuko, baldin eta hura izapidetzeko datan egunean ez badago aipatutako betebehar horiekin eta Gizarte Segurantzarekin.

8. ARTIKULUA. AURREKONTU KREDITUAK

- 1.- Deialdiko diru-laguntzak Bilboko Udalak 2019ko ekitaldirako onartutako aurrekontuaren 2019 61000 17230 4809900 aplikazioan diru-sailaren kargura finantzatuko dira.
- 2.- Deialdi honetarako zenbatekoa HAMABOST MILA EUROKOA (15.000) da.
- 3.- Diru-kopuru hori amaitutakoan, eten egingo dira diru-laguntzak harik eta aurrekontuan beste dotazio bat baimendu arte. Hori Bilboko Udalaren webgunean jakinaraziko da.
- 4.- Aurrekontuko dotazioa handitu egin daiteke, egin diren kargak ikusita, beste deialdirik egin barik.

9. ARTIKULUA. DIRU-LAGUNTZAK

- 1.- Diru-laguntza, gehienez ere, bi orduko aparkaldiaren kostua izango da, erabiltzaileak aparkaldia ibilgailua kargatzeko erabiltzen duen bakoitzean.
Aparkalekuetako tarifak Udalak 2019. urterako onartu dituenak izango dira.

10. ARTIKULUA. BATERAGARRITASUNA BESTE DIRU-LAGUNTZA BATZUEKIN

- 1.- Diru-laguntza hauek bateragarriak dira helburu bererako beste diru-laguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuekin, edozein dela ere horiek ematen dituen Administrazioa edo erakunde publiko edo pribatua, nazionala, Europar Batasuneko edo nazioartekoa.
- 2.- Nolanahi ere, modu isolatuan edo beste diru-laguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera, esleitutako diru-laguntzaren zenbatekoak ezin izango du inolaz ere diruz lagundutako jardueraren kostua gainditu.
- 3.- Pertsona edo erakunde onuradunek udal ebazpenaren ondoren proiektu bererako beste administrazio publiko batzuetatik diru-laguntzak jasotzen badituzte, Bilboko Udalari derrigorrean jakinarazi beharko diote, hilabete baino lehenago dagokion jakinarazpena jasotzen dutenetik.

11. ARTIKULUA. ESKABIDEAK

Deialdi honi buruzko informazio eta dokumentazio guztia eskura egongo da udalaren webgunean (www.bilbao.eus); Bilboko Udalaren Herritarren Arretarako Bulegoan, San Agustin Eraikinean; Barrutiko Udal Bulegoetan, ohiko ordutegietan; Bilboko Udalaren gardentasun atarian eta Diru-laguntzen Datu-base Nazionalean.

Diru-laguntzak eskuratu nahi dituzten pertsona fisikoek eskabidea (I. eranskina) aurkeztu behar dute agiri hauekin batera:

- Eskari-egilearen NANA.
- Ibilgailuaren agiriak (zirkulazio-baimena). Gainera, renting-ean badago edo enpresak lagatakoa bada: aseguruaren paperak, ohiko erabiltzailea dela ziurtatzeko.

- Erantzukizunezko aitortpena, diru-laguntzak eskuratzeko 38/2003 Lege Orokorren 13. artikulua ezartzen dituen debekuetako bat ere ez duela adierazten duena. (II. eranskina).

- Borondatezko baimena Udalaren alde, hark bildu ditzan Gizarte Segurantzari eta zergei dagozkien betebeharreri buruzko datuak. III. eranskina.

- Aurreko atalean aurreikusitako baimena ematen ez bada edo Udalak ezin baditu ziurtagiriak lortu, orduan zerga-betebeharreri eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharreri dagokienez egunean dagoela egiaztatzen duten ziurtagiriak aurkeztu behar dira, hurrenez hurren, eskumena duen Zerga Administrazioak eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak urte horretan eginak.

- Eskatutako laguntzen erantzukizunezko aitortpena. (IV. eranskina)

- Borondatezko baimena Udalaren alde, hark bildu ditzan kontsumoari buruzko datuak, operadorearengandik.

2.- Eskaerak Bilboko Udalaren Erregistroan aurkez daitezke, edo, bestela, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan aurreikusitako beste edozein erataria.

3.- Eskaerak aurkezteko epea deialdiaren laburpena Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoko egunean hasiko da. Nolanahi ere, eta aurrekonturik dagoen kontuan hartu gabe, eskaerak aurkezteko epea 2019ko urriaren 15ean amaituko da.

Informazioa Udalaren webgunean ere eskuragarri dago (www.bilbao.eus/Mugikortasun eta [Jasangarritasun Saila](#)).

12. ARTIKULUA. LAGUNTZA EMATEKO PROZEDURA ETA EBAZPENA

1.- Diru-laguntzetarako deialdi honetarako gordetako aurrekontu-kreditua deialdi honetan ezarritako baldintzak betetzen direla ziurtatzen duten pertsona fisikoei banatuko zaie, 9. artikuluan ezarritako laguntzen zenbatekoen arabera.

Onuradunen zerrenda egingo da, erakunde laguntzaileei emateko.

2.- Prozedura bideratzeko eskumena duen organoa Mugikortasun eta Jasangarritasun Saileko teknikariek osatua izango da.

Organo izapidegile horrek ebazpen proposamena egingo du, ziurtatu ondoren:

- Onuradunak eskatutako dokumentazio guztia aurkeztu duela.

- Onuraduna egunean dagoela bere zerga-betebeharreri eta Gizarte Segurantzaren alorrekoiei dagokienez, eta ez duela zerga-izaerako inolako zigorrik edo zorrik Udal honekin epe exekutiboan, salbu eta atzeratuta badago, zatikatuta badago edo betearazpena etena badago.

3.- Gobernu Batzordeak edo berak eskuordetutakoak ebatziko du prozedura.

Ebazteko eta interesdunei jakinarazteko gehienezko epea hiru hilabetekoa izango da, eskaera aurkezten denetik, edo dokumentuak zuzentzeko eskatu bada, horiek zuzenduta aurkezten direnetik zenbatzen hasita.

Ebazteko eta ebazpena jakinarazteko gehienezko epea igaro ondoren, eskaera ezetsi ahal izango da, administrazio isiltasuna dela-eta.

Eskatutako diru-laguntza emateko edo ukatzeko ebazpenarekin amaitzen da bide administratiboa.

Horren kontra aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da ebazpena eman duen organoaren aurrean, hilabeteko epean jakinarazpena egiten denetik zenbatzen hasita, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, dagokion administrazioarekiko auzi - epaitegiaren aurrean, bi hilabeteko epean jakinarazpena egiten denetik zenbatzen hasita.

4.- Prozedura izapidetzeko eta ebazteko egintzak banakako jakinarazpenaren bidez jakinaraziko dira.

13. ARTIKULUA. DIRU LAGUNTZA ORDAINTZEA

Diru-laguntza erakunde laguntzaileei ordainduko zaie; kopurua, diru-laguntzen onuradun diren pertsonen ibilgailuen aparkaldien kostua izango da. Erakunde horiek hiru hilean jakinaraziko diote Udalari zenbatekoa eta onuradunen zerrenda. Lankidetzahitzarmenen bidez ezarriko da karga benetan egin dela ziurtatzeko modua.

Mugikortasun eta Jasangarritasun Sailaren Ordezkaritzak emango du onartutako diru-laguntza ordaintzeko ebazpena, eta erakunde laguntzaileari jakinaraziko zaio; ordainketa egiteko, Udal honetako Hartzekodunen Erregistroan bere izenean agertzen den kontu korrontean sartuko da dirua.

14. ARTIKULUA. JUSTIFIKAZIOA

Kargak 2019ko abenduaren 31ra arte egin ahal izango dira eta justifikazioa, gehienez ere, hilabete bi geroago aurkeztuko da.

Erakunde laguntzaileak ziurtatuko du karga aplikazioaren edo antzeko erregistroaren bidez egin dela. 13. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrita, aparkaldi horiengatik jaso ez dituen diru-kopuruen zerrenda bidaliko du.

Udalak bere kabuz ziurtatuko du benetan egindako kargak; horretarako, ikuskapenak egingo ditu aldian behin eta bidali zaion dokumentazioarekin erkatuko du.

15. ARTIKULUA. DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN GASTUAK

Diruz lagun daitezkeen gastutzat hartuko dira ibilgailua kargatzeko udal aparkalekuetan ibilgailua aparkatzean sortutako gastuak, betiere aparkalekuko emakidadunak horretarako hitzarmena sinatuta badauka, azaroaren 17ko Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 31.8 artikuluan adierazitakoaren arabera.

16. ARTIKULUA. OBLIGAZIOAK EZ BETETZEAREN ONDORIOZKO ERANTZUKIZUNAK

Deialdi honetan zehaztutako betebeharrak betetzen ez badira, edo bertan eskatzen diren datuak eta eskakizunak faltsutzen edo ezkututzen badira, diru-laguntzaren

zenbatekoa itzuli beharko da, dagozkion atzerapen interesak barne, diru-laguntza jasotzen den unetik aurrera.

17. ARTIKULUA. EMANDAKO DIRU LAGUNTZEN PUBLIZITATEA

Urtea bukatu aurretik, emandako eta ukatutako diru-laguntza guztiak argitaratuko dira udalaren webgunean.

Era berean, diru-laguntzen publizitatea egingo da Diru-laguntzen Datu-base Nazionalaren bitartez, Diru-laguntzen Lege Orokorrak ezarritakoaren arabera.

Bilbon, 2019ko otsailaren 20an

Mugikortasun eta Jasangarritasun Saila.